

BENETAKO ZORIONA EZ DA DIRURIK KOSTATZEN



2017/2018

Ikasturteak

BALIATU ZEURE AISIALDIA BENETAN AXOLA DUENERAKO
Zeuk irabaziko duzu, planetak irabaziko du, denok irabaziko dugu



NATUR ZIENTZIAK - 1. 2. eta 3. Ikasturteak

Irakaslearen fitxa:

Unitate didaktiko honetan ikaslearengan gogoeta sorrarazi nahi dugu geure bizimoduak gizartean eta ingurunean dituen ondorioei buruz, bai hurbilean geure komunitatean eta bai mundu mailan [nazioarteko komunitatean]

Erabiliko diren metodologiak alderdi curricularrak eta Garapenerako Hezkuntza lantzeko irizpideen arabera antolatutak daude, izan ere:

1. Abiapuntutzat ikaslearen hurbilekoak diren egoerak eta/edo arazoak hartzen dituzte.
2. Lankidetzako ikasketa jarduerak barne hartzen dituzte.
3. Aintzat hartzen dituzte ikasleen arteko desberdintasunak eta aniztasuna.
4. Ikasleen erantzukizuna bultzatzen dute ikasketa prozesuan.
5. Pentsaera kritikoa eta zalantza eraikitzailea sustatzen dute.
6. Lankidetzak eta bizikidetzak giroa sustatzen dute pertsonen arteko harremanetan.

Helburu espezifikoak

1. Gizakiaren ekintzak planetan duen inpaktua murrizteko neurriak analizatzea, maila desberdinetan [gizabanako, familia, herri, nazio eta mundu mailan]
2. Munduko herrialde guztiak industrializatuak baleude zer gertatuko litzatekeen interpretatzea eta analizatzea.
3. Argudiatzen ikastea giza jardueraren ondoriozko inpaktuari aurre egiteko maila desberdinetan hartzen diren neurriak eztabaidatzeko.
4. Norberaren iritzia adieraztea baliabideen gaur egungo kudeaketaren egoeraren gainean.
5. Besteen iritzia eta hitz egiteko txandak aintzat hartzea eta asanblada identifikatzea irizpide guztiak kontrastatzeko baliabide eta partaidetza demokratikoko funtsezko elementu gisa.

Edukiak

Kontzeptuak

- Planetako ingurugiroaren egoera.
- Garapen iraunkorra.
- Kontsumismoaren ondorioak.
- Publizitatearen ahalmena.
- Ingurune arazoaren gainean kontzientziaztearen aldeko borrokan nabarmendu diren pertsonak.

Prozedurak

- Gogoeta kritikoa kontsumo gizartearen eta beronen ezaugarrien arloan.
- Garapen ereduaren balorazio kritikoa.

NATUR ZIENTZIAK - 1. 2. eta 3. Ikasturteak

Jarrerak

- Erantzukizuna erabakiak hartzean.
- Jarrera eta gogoeta kritikoak kontsumo gizarteko ingurune inpaktua geldiarazteko sortu diren neurrien aurrean.
- Partaidetza demokratikoa.
- Giza eskubideen errespetua eta babesa eguneroko bizitzan.

Oinarrizko kompetentzien lorpenean laguntzea

Gaiari dagozkion kompetentzia espezifikoak:

Ikerketa: Konklusioak ateratzea, prozesu batetik nabaritasunak ondorioztatzea ahalbidetzen duten testu eta bideoetatik abiatuak.

Gizarte eta herritar dimentsioa: Gogoeta egitea giza ekintza indibidual eta kolektiboen asmo eta ondorioei buruz, eta eredu teknologiko jakin batek ingurunean eta gizartean dituen inpaktuak aztertzea. Gizakiak planeta zaintzeko eta babesteko daukan betekizunaz jabetzea.

Kompetentzia orokorrak:

Komunikaziokoa: modu argi, koherente eta eragilean argudiatzea premisa batzuetatik abiatuak. Kompetentzia hau ahozko aurkezpen batean frogatu beharko dute.

Informazioaren kudeaketa eta tratamendua: kasuen azterketari aplikaturiko informazioaren bilaketa eta hautaketa, beste iturri batzuen, edota datu base publikoen behaketaren emaitza diren datuetatik egindako balorazioekiko kontrastea.

Pertsonala eta interpersonala: portaerari berari buruzko kontzientzia kritikoa garatzea / ingurumenari buruzko jarrerak.

Munduaren ezagutza eta beronekiko interakzioa; sentsibilizazioa sustatzea gaur egungo ingurumen arazoaren aurrean, eta ingurunea errespetatzen dela adierazten duten jarrerak. Giza inpaktua murrizteko ezartzen diren neurri garrantzitsuenak ezagutzea.

Denbora banaketa

- 50na minutuko 2 saio.

Ebaluazio irizpideak

1. Ea proposatzen dituen neurri zuzentzaileak garapen iraunkorreko marko baten barruan, oinarrituak eta ongi arrazoituak.
2. Ea baloratzen duen gizabanako edo etxe mailako ohituren eragina mundu mailako arazoaren arintze edo areagotzean.
3. Ea gogoeta egiten duen era kritikoan kontsumo gizarteko elementu desberdinen eta beraien ezaugarrien gainean eta proposatzen dituen bestelako kontsumo ohitura batzuk edo ogasun eta zerbitzuen produkzioarekin erlazionaturiko beste jarduerak ekonomiko batzuk.

Aniztasunaren arreta

Curriculumaren egokitzapenak

- a. Arreta eskaini taldearen erritmoa jarraitu ezin duten ikasleei eta horien posibilitateetara egokitu lana.
- b. Motibazioa baliatu funtsezko elementu gisa saioaren hasieran, eta ikasleak bihurtu lanaren protagonista.

Materialak

- Proposatutako jardueretan zehazten diren testuak eta estekak.
- Internetera konektaturiko ordenagailua.

Iradokizun didaktikoak eta proposatzen diren jarduerak.

Sarrera: Nola kudeatzen ditugu baliabideak eta zertara dedikatzen dugu geure denbora? Ikus "The Gaia Foundation" bideoa

https://www.youtube.com/watch?v=fll_Lr5Rf5A



Eztabaidatu talde txikitik honako galdera hauen gainean:

- Zure ustez bideoak ongi islatzen al du gaur egungo gizartearen jokabidea?
- Identifikatua sentitzen al zara istorioko protagonistarekin? Zergatik?
- Inoiz pentsatu al duzu zenbat denbora pasatzen duzun mugikorrarekin edo erosketak egiten? Ba al dakizu zenbat denbora kentzen dizun horrek astean zehar?
- Zer azpimarratuko zenuke baliabideak erauzteko eta fabrikatzeko erari dagokionez?
- Zoriontsuago al da gehiago daukana?
- Norekin izaten duzu nahiago erosketak egitera joatea? Azaldu zergatik.
- Iruzkindu ezazu interesgarria iruditu zaizun guztia.

- Zenbat denbora jarduten duzu kontsumitzen? Zenbateko garrantzia dauka horrek zure bizitzan? Zer eragin dauka zugaran? Eta besteengan? Eta ingurunean?

Irakur ezazu arretaz 2011ko otsailean “El País” egunkarian argitaratu zen ondoko artikulua, he-
lbide honetan aurkituko duzuna:

http://elpais.com/diario/2011/02/20/negocio/1298213248_850215.html

TRIBUNA:

Kontsumo jasanezina

*Enpresa globalek ez daukate etorkizunik baldin
Lur planetak etorkizunik ez badauka*

Gutako gehienon izendatzaile komuna hau da: bizirauteko lan egiten dugula, gure gizarte hau osatzen duten erakundeek saltzen dizkiguten produktuak eta zerbitzuak. Hain zuzen, kontuan edukirik gure bizitzak sistema monetario baten gainean finkatzen eta garatzen direla, enpresek ez gaituzte ez ikusten ez baloratzen eta ez tratatzen gizaki gisa, enplegatu, bezero eta kontsumitzaile gisa baizik. Hau da, momentu honetan euren azken helburua dena erdiesteko, alegia, euren biziraupena bermatzeko bitarteko gisa, urtetik urtera beren mozkin ekonomikoak gehituz.

Eta ogasunen salmenta horixe da sistema monetarioari irauarazten diona. Gure erosketen kantitatea eta kalitatea irabazten dugun soldataren edo errentaren menpe badaude ere, ekonomiak zutik jarraituko badu, beharrezkoa da denok kontsumitzen jarraitzea. Beste era batera esanda, kontsumoaren akaberak sistemaren kolapsoa ekarriko luke.

Salmentak eta mozkinak gehitzeko, enpresek alde batera uzten dituzte etika eta erantzukizun soziala

Paradigma benetan beharrezkoa dena eta ingurunea errespetatuz fabrikatu dena erostea da

Baina, nondik ateratzen dira guk erosten ditugun gauza guztiak? Galdera horri erantzuteko, aurrena ulertu beharra dago “materialen ekonomia” deritzona, hainbat fasetan gauzatzen den prozesu bat. Lehenbizikoa erauzketa da, egiazki eufemismo bat, izan ere, baliabide naturalak ustiatzean baitatza, eta hori bera ere naturaren suntsiketa adierazteko modu dotore bat bizik ez da. Halako ziztuan ari gara basoak mozten, zulatzen, azpia jaten, suntsitzen ze ekologista batzuek dioten gizateria Lur planetaren minbizia dela.

Bigarren fasea produkzioa da. Horretarako, erauzitako energia iturri batzuk erabiltzen dira hainbat osagai toxikorekin nahasian eta horrela fabrikatzen dira guk egunero kontsumitzen ditugun produktuetako asko. Eta nola enpresa askori ez zaien batera axola gai kimiko horiek gure osasunean eta ingurumenean duten inpaktua, gai kaltegarri horiek erabiltzen jarraitzen dute produkzioaren kostua nabarmenki merkatzen dutelako. Oraingoan enpresa munduak arazo hau konpontzeko baliatzen duen partxea beren fabrikak garapen bidean diren herrialdeetara eramatea da.

Hirugarren fasea banaketa da, eta horren helburua hau da, egindako produktuak ahalik eta azkarren saltzea. Produkzio sistema lekualdatu denez –lan esku askoz merkeagoa kontratatzeko– gaur egungo merkataritza logistika gure ekonomiako prozesu kutsakor eta jasanezinetako bat bihurtu da.

NATUR ZIENTZIAK - 1. 2. eta 3. Ikasturteak

Dena dela, hemendik sortzen da laugarren fasea: kontsumoa. Zalantza gabe, hauxe da sistema monetarioa bizirik mantentzeko odola ponpatzen duen bihotza.

Beren salmentak eta, horrekin batera mozkinak gehitzeko helburuaz, enpresek hainbat erabaki hartzen dituzte biziraupen senak bultzaturik, etika eta erantzukizun sozial korporatiboa alde batera utzita. Horrela, erakunde askok diseinu industrialeko sail bat edukitzen dute, beren produktu guztiak material merke eta kalitate txarrekoaz eginak izan daitezzen, iraunkortasun mugatu bat edukitzeko. Kontsigna hauxe da: "baztertua izateko diseinatua". Plastikozko zorro eta kartoizko tetrabriketan erreparatu besterik ez dago hau horrela dela ikusteko. Baina kontsumitzen ditugun askoz gauza gehiagorekin gertatzen da gauza bera.

Fabrikatzaileekin elkar harturik, erosten ditugun produktuak berariaz diseinatzen eta produzitzen dira hautsi edo matxuratu daitezzen edo funtzionatzeari utz diezaioten berme dataren iraungipenarekin bat etorriz. Normalean, mugikorra, edo ordenagailua, edo kamera digitala edo telebista hondatzea ez da ustekabeko istripuz gertatzen. Alderantziz, ongi kalkulaturiko fabrikazio estrategia da, eta enpresa munduan "zaharkitze planifikatua" deritzo.

Horregatik, bizitza honetan urte asko daraman jendeak harriturik ikusten du gaurko produktuek, teorian azken aurrerakuntza teknologikoen arabera eginak izan arren, orain dela berrogeita hamar urte fabrikatuek baino askoz ere gutxiago irauten dutela. Askotan konparatzen dira gaur egungo automobilak eta berrogeita hamarreko hamarkadan egindakoak, horietako asko oraindik ere funtzionatzen dirautenak Kuban eta antzeko herrialdeetan. Orduan ez bezala, gaur egungo mundua negozio bihurtu da eta enpresek ahalegin guztiak egiten dituzte kontsumoaren zikloak etengabe jarrai dezan.

Halere, kontsumo mailako estrategiarekin ere, ez dira lortzen erakundeen eta hauek diharduten sistema operatiboaren biziraupena ziurtatzea lortzeko beharrezko ratioak. Horregatik enpresek, marketinaren eta publizitatearen bidez gizateria bultzatzen dute bere kontsumo ogasunak erostera, baztertze- eta berriez ordezkatzera gero eta erritmo biziagoan. Helburua hauxe da, kontsumitzaileengan gero eta produktu berriagoak, hobexeagoak eta behar dena baino lehentxeago edukitzeko gogoia sortzea. Fenomeno psikologiko honi "sumaturiko zaharkitzea" deitzen zaio.

Harrigarriki, gaur egungo kontsumo gizartearen propagandak azkenean sinetsarazi digu baztertu egin behar ditugula oraindik balio duten eta egoera onean dauden produktuak. Hau da, geure nahikeriekin bat datozen erabakiak hartu behar ditugula bigarren planoan utziz zuhurtasuna, dirua benetako giza premiak asetzeko erabil dezagun esaten diguna. Paradoxikoki, nahikeria horrek ez daukagunaren gainean eraikitako fikzio batera garamatza egiazki geure esku daukaguna baloratzea eta gozatzea eragozten diguna.

"Materialen ekonomiako" bosgarren eta azken fasea ezabatzea da. Hau da, egunero pilotzen ditugun tona eta tona zabor desegiteko prozesua. Gaur egun ohikoena erretzea edo lurperatzea da, eta horrek ere kalte larria eragiten du planetaren osasunean. Birziklatzea modan badago ere, oraindik oso urrun dago arazo hau bideratzetik. Batez ere, estimazioen arabera, erauzketa, produkzio, banaketa eta kontsumo prozesuetan parte hartzen duten material guztien %1 bakarrik dago osorik eta erabilgarri saldu eta sei hilabete geroago. Alegia, gainerako %99a zabor bihurtzen da, mundua astiro baina etengabe zabortegi erraldoi bat bihurtzea eraginez.

"Materialen ekonomia" honen eraginkortasunik eza eta jasanezintasuna dela eta, gero eta soziologo eta ekonomista gehiago ari dira beren ahotsa entzunarazten egia ezeroso bat adierazteko: sistema monetarioak –kontsumo zikliko baten premia baliatuz-- hazkuntza ekonomikoa sortzen badu ere, gizartearen asegabetasunaren eta planetaren suntsipenaren bidez lortzen duela hori. Harrigarriki, zenbat eta zorigaitzokoago garen orduan eta gehiago kontsumitzen dugu. Eta zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta zorigaitzokoago gara. Paradigma horrek gure bizi estiloa gobernatzen jarraituko du, harik eta "paradigma ekonomiko zaharraren" oinarriak zalantzan jartzen ez ditugun bitartean, materialismoak zorientasunera garamatzalako gezur handia saltzen baitigu.

NATUR ZIENTZIAK - 1. 2. eta 3. Ikasturteak

Horrekin batera, "paradigma ekonomiko berriak" proposatzen duen erronka nagusietako bat hauxe da: onar dezagula "kontsumo arduratsuaren" filosofia. Alegia, egiazki behar duguna erostea, eta ez publizitateak desiragarri gisa aurkezten duena, etaaldi berean kontzientzia ekologiko sendoagoa garatzea, aurretiaz informatuz ea kontsumitzen duguna ingurunea errespetatuz ekoitzia den. Kontsumitzaile gisa egin dezakegun onena kontsumo ekologikoa babestea da gaur egun eskaintzen duen produktu eta zerbitzu aukera guztian.

Izan ere, erakundeetan beren biziraupen sena bideratzeko, aurrena gizabanako gisa aldatu beharra daukagu geure kontsumitzeko era. Hau da, bulkadaka kontsumitzeari utziz, balioen arabera mugitzen hasi behar dugu. Eta hori aldaezina den lege ekonomiko baten zatia da: enpresa korporazioak ez dira aldatuko aurrena kontsumitzaileak aldatzen ez badira. Zenbat eta gehiago esnatu kontzientzia hau gizartean, orduan eta azkarrago aldatu eta eboluzionatu beharko dute erakundeek egokitu eta ekonomikoki biziraun nahi badute. Guk onartu ala ez iraultza geure esku daukagu.

Artikuluaren egileak esaldi honekin amaitzen du: "Iraultza zeure esku daukazu".

Gauzak aldatzeko, denbora behar da; gogoeta egiteko eskatzen dizugu ea zertara dedikatzen duzun zeure denbora, hasieran formulatu ditugun galderari erantzunez:

- Zenbat denbora ematen duzu kontsumitzen? Zenbateko garrantzia dauka horrek zure bizitzan? Zer eragin dauka zuegan? Eta besteengan? Eta ingurunean?



NATUR ZIENTZIAK - 1. 2. eta 3. Ikasturteak

- Partekatu ikasgelako beste taldekideekin.

Noah Seath buruzagiaren gutuna

Jarraian planteatuko dizuegun bideoa ikusteko proposatzen dizuegu:

1854an, Noah Seath Seattle indiarren buruzagiak [Ipar Amerikako jatorrizko herrietako bat] gutun bat idatzi zion Estatu Batuetako presidentea zen Franklin Pierceri, indiarrei beren lurrak kentzeko asmoa zuela eta. Noah Seathek, presidenteari idatzi zion gutunarekin, ingurunearen eta naturaren aldeko, eta gure egunetara arte iraun duen, lehenbiziko manifestua sortu zuen.

<https://www.youtube.com/watch?v=2Thpt1UnzrY>

Gogoeta egiteko:

- Ezagutzen al duzu industria edo merkaturen bat ezartzeko bere lurrak edo etxea kendu dizkieten pertsonen kasuren bat?
- Zure ustez, ba al dauka gaurkotasunik indiar buruzagiaren gutunak? Zergatik?
- Zure eskola zentroan iradoki al litezke neurriren batzuk ingurunea zaintzeko kontzientzia areagotzen lagun lezaketenak? Zein neurri?